

TOPOZ TOPO KOLDO MITXELENAREKIN

Felipe Araña Mendiñeta

Esango nuke hemen Erreterian, bere jaioterrian bertan, Koldo Mitxelenaren maila ez dela behar den bezala balioztatzen. Ausartzen naiz oraindik gehiago esatera: Herri honetan menderen mendetan jaio direnen artean ospetsuenetako bat, zalantzarik gabe dugula Koldo Mitxelena. Beraren berri banituen baina berarekin topoz topo egin ondoren hiru ezaugarri edo karakteristika ikusten ditut Erretereriako seme honengan, hau da; Gizon jakintsua, gizon abertzalea eta gizon kristau ona izan zela. Hiru ezaugarri horiei buruz zerbait idatziko dut, baina lehenago bere bizitzaren datu batzuk jarriko ditut.

Bere Bizitza.

Erretereriako parte zaharrean oraindik gaur, hor daude kale batzuk beren betiko izenekin. Izen hauek adierazten dute izenak jar-

tzerakoan Erretereria oso txikia zela. Hona hemen, ba, izen hauek: *Goiko Kalea*, *Erdiko Kalea* eta *Beheko Kalea*. Ez zen beste kalerik izango garai harretan?. Kale motxak eta estuak dira eta eliza zahar Asuntzionen ondoran daude. Hiru kale horietako batean jaio zen gure Koldo, Goiko Kalean, alegia.

Egunen batean, ez dakit noiz eta ez da erraza izango, Kale horiei beren izenak aldatzen badizkiete, derrigorrez “*beharrezkoa*” izango litzateke “*Goiko Kaleari*” Koldo Mitxelena izena jartzea. Herria zortetan dago berarekin nahiz Instituto batek bere izena eraman. Toki askotan bera bezain ospetsuak ez direnak badituzte jaioterrian kaleak beren izenekin. Gaur egun Erretereriak 40 bat mila biztanle baditu, zenbat biztanle izango zituen Koldo Mitxelena 1915ean bertan jaio zenean?. Lau mila?... bost mila?... Hor nonbait, eta gainera garai haretan ia denak bertako semeak, euskaldu-



nak (euskaraz mintzatzen zirenak) eta elkar ezagunak.

Herriko ikastetxetan hazi eta hezi zen batxilerra bukatu arte behintzat. Gaur, gazte asko batxilerra bukatuta, unibertsitatera joaten dira karrera ikasketak egitera, gurasoen diruari eskerrak. Koldorentzat hori ezinezkoa zen. Batxilerra ikasketak egiten ari zela lanean hasi behar izan zuen, bai eta gero lanean jarraitu ere. Bere gaztaroan ez zegoen gaurko botere ekonomikorik eta karrera bat egin nahi zuenak, gorriak ikusi behar zituen. Halaz ere, gure gazteak ez zuen amorerik eman eta beti aurrera jo zuen. Ez zituen behin ere euskal literaturaren ikasketak alde batera utzi, bere kabuz jarraitu zuen ikasketekin, lanean zebilela, eta hala harrapatu zuen 1936ko gerrak. Gerra hasi zenean ez zen Francoren aldekoekin joan baizik eta galegoaren aurkakoekin. Euskal abertzaleak herriak hautatutako agintarien alde joan ziren, hau da, demokratikoen alde. Eta hala jarraitu zuen Kantabriako Santoñan harrapatu zuten arte. Gerrako hiru urtetatik bi kartzelan egin zituen eta esango dudan bezala, gero berriz ere giltzapean sartu zuten. Denborarik galdu gabe, han barruan bertan bere kabuz ikasketak egiten jarraitu zuen eta denak bukatuta, behin betiko irakasle, ikerketa eta idatzi lanari eman zion bere bizi guztirako, eta nola gainera!

Askorentzat KM irakaslea edo, are gehiago, idazlea izan da bere bizitzan. Nereztat baditu beste ezaugarri batzuk handiago egiten dutenak. Errenteriako seme handi honek baditu hiru ezaugarri eta banaka eta laburki hirurak ikusiko ditut.

Errenteriako semea ni ez izanik, nik baino gehiago askok jakingo dute KM-ri buruz. Hala ere, askok ez dakiten berriren bat izango dut nik ere, besteek ez dakitena. Izango dut berriren bat berarekin izan nuen elkarrizketatik aterata.

Nahiz euskalduna izan eta bizitza erdia baino gehiago Iparragirrek esan zuen bezala “...extranjeri (atzerri) aldean pasa det denbora...”, nik beti izan ditut harremanak Errenteriako ahaide edo pariente batzuekin. Nere apaiz lanetatik oporretara etortzen nintzenean, pariente hauek ikusten nituen. Nere pariente hauek Errenterian, batez ere euskaldunen artean nahikoa ezagunak dira: hau da, Gezala-Goikoetxea eta Lakuntza-Araña familiak.

Ez daukat gogoan zein urte izango zen baina ongi gogoratzen naiz nola etorrera

batean, Miren Gezalak gonbidatu ninduen (ez zen lehenengo aldia) bere etxera afaltzera. Esan zidan gau hartan Koldo Mitxelena-rekin afaldu behar zuela eta gusto handikoa izango zuela hirurok afaldu eta ondoren solasaldi luze batean han egon. Nahiz urte asko kanpoan iragan, banekien nor zen eta zein ospetsua zen Errenteriako seme hura. Neretzak topo topoz topo hura oso hunkigarria izan zen. Hainbat eta hainbat gauza eta gairi buruz hitz egin genuen eta oraindik ez ditut ahaztu, ez eta ahaztuko ere, ordu haiek. Jakinda nor zen eta pentsatuz elkarrizketa haietaz, ongi iruditu zait lerro hauek idaztea eta gero bizitza horri hiru arlo edo ezaugarri adieraztea, nahiz laburki.

Ezaugarri hauek, esan dudan bezala, **JAKITURIA**, **ABERTZALETASUNA** eta **KISTAUTASUNA** dira.

Ez dakit gehientzat hiruretatik zein izango den handiena. Jakintsu batentzat zalantzarik gabe **JAKITURIA** izango da. Abertzale batentzak berriz, **ABERTZALETASUNA** eta kristau batentzat bere **KRISTAUTASUNA** izango da ezaugarri handiena, nahiz ospea Jakituriak eman. Horregatik, nik hirurak aipatzen ditut aipagarriak iruditzen zaizkidalako.

Gizon Abertzalea.

Jaiotzetik bere herria eta bere aberria maite zituen eta gaztetatik PNV-ra kidetu zen. Horregatik, gerra hasi zenean ez zuen zalantzarik izan norekin eta noren aurka jokatu behar zuen egoera hartan.

Irakurririk daukat gerra hartan milioi t'erdi pertsona hil zirela. Beste hainbatek ihes egin zutela, batik bat Ameriketara, eta beste asko giltzaperatu egin zituztela. Hauen artean, urte bat gerran zuela, Koldo Mitxelena Santoñan preso hartu zuten eta heriotzera kondenatu era bai. Ze gizon handi galduko genuen ohitura zuten bezala tiro batekin hil bazuten! Gerra bukatu zenean, heriotza barkatu eta 30 urteko kartzela eman zioten. Gero 14ra jaitsi eta gerra bukatu eta lau urte ondoren askatu zuten.

Pentsa dezagun ea nola aterako zen, argala eta osasun txarrekoa baitzen gure K M! Behin kalean pentsatu zuen halakoan onena ezezagunen artean sartzea izango zela eta hala non eta Madrilen sartu eta gelditu zen. Baina han ere ez zen izango zoriontsu. Norbaitek ezagutu, salatu ere bai, eta berriz giltzaperatuta ezusteko handi



batean bigarren aldiz. Zazpi urte gerra bukatu ondoren, oraingoan bi urte zigorra eman zioten.

Bere abertzaletasunaren prezioa izan zen. Geroago, Franco hilda, partidu politikoak kaleratu zirenean, Errenterian PNV-ren aurkezpenean hemen egon zen bere sentimendu eta euskal abertzaletasunarekin. Nik gai honetan nekizkienak elkarrizketa hartan finkatu ziren.

Gizon Kristau Ona.

Gizon ona zela esaten dute askok eta nik esaten dut gizon ona zela benetako kristaua

zelako. Kristau handi bat zelako. Bere kristautasuna gurasoengandik hasita hartu zuen eta ez zuen behin ere galdu edo utzi. Jakinda ni apaiza nintzela kontatu zizkidan bere kristautasunarekin zerikusia zuten gertae-rak, batik bat kartzelakoak eta nola bere bizitzan ahalegina egin zuen kristau on batek bezala bere arazoak eramaten eta konpontzen.

Gerrakoan Franco eta bere aldekoentzat euskaldun abertzaleak komunistak ziren eta garai hartan hori esatea, esan zitekeen txarrena esatea zen pertsona batentzako, gaur terrorista esatea bezala. Garai hartan, eta gaur ere, askorentzat abertzalea eta kristaua

batean izatea ezinezkoa zen eta ezinezkoa da. Orduan Francok eta beretarrek ere uste zuten beraiek bakarrik onak zirela eta beste denak, euskaldunak batik bat, gaiztoak. Gaur ere ez al dute berdin pentsatzen askok?

Pentsaera horrekin ausartu ziren Batikanoari “Generalisimoaren” kanonizazioa eskatzera. Latinez lehenago esaten zen “RISUM TENEA” Barre egin ezazue.

Batikanoak hanka-sartzeak izan ditu, baina Franco eta beste norbait nik gogoan daukadana kanonizatzea, ez eta pentsatu ere. Gerra denboran, eta ondoren ere bai, gure Errenteriako herrikoa bi aldiz kartzelan egon zen. Sei urte lehenengoan 1937tik 1943ra eta beste bi 1946tik 1948ra bigarrenean.

Denak zortzi urte diktadore baten alde ez zegoelako. Kristau on batek bezala pentsatuz zortzi urte horietan bere kontzientziak hala eskatzen ziolako KM igandero kartzelan zegoela, mezetara joaten zen eta hori kartzeleko agintariek ezin zuten onartu, eta are gehiago, haserretu egiten ziren beti mezetan Jaunartzera (Komunio hartzer) joaten zelako. Esan dudana bezala, Koldo Mitxelenak hori bere kontzientziak eskatzen ziolako egiten zuen eta agintariek berriz, ezin ongi eraman eta haserre, mezatako gaietan beraiek ez zuten agintzen, apaizek baizik, horregatik ez zuen lotsarik, ez eta beldurrik ere, eta horrek ez zion arazorik ekarri. Arazo bat izan zitekeen kartzeleko elizara joatea edo sartzea debekatzea, baina hortaraino ez ziren ausartu kartzelariak.

Hau dena Koldok berak esan zidan niri eta iruditzen zait esatera beharturik nagoela norainoko gizon kristau ona izan zen Errenteriako seme ospetsu hau.

Honekin ez dut esan nahi mezetara eta Jaunartzera joaten diren gizon eta emakume guztiak onak direla, ez. Badakit gauzak bereizten.

Gizon Jakintsua.

Gizon kristau ona betidanik izan zen eta abertzalea ere bai; jakintsua berriz, urteetan eguneroko lanarekin egin zen eta jakituria lortu zuen.

Txikitatik beti euskal filologiari bere kabuz heldu zion. Kartzelatik atera zenean, Filosofia eta Letrak esaten den karrerari

hasiera eman eta bukatu zuen, tartean beti lan eginez. Gero Filologia Klasikoa ikasi zuen eta hortik aurrera irakasle lanari eman zion unibertsitatean.

Salamankatik hasita, toki askotatik pasatu zen; Torrelavegan, Donostian, Gazteizen, Iruñean eta Parisko Sorbonan ere irakatsi zuen. Ospe handiena Filologia eta Linguistikak edo Hizkuntzalaritza Indoeuropearrak eta Euskarazkoak eman diote. Bere idazki gehienak gai hauei buruz idatzi zituen eta munduko espezialista handienak bere lagunak izan zituen; hil arte harremanetan zebilen askorekin, batez ere Nils M. Holmer suediarrekin.

Koldo Mitxelenak egin zituen lanak eta ikerketak luzeak eta buruhauste handikoak izan zituen. Zenbat artxibo ez zituen nahaskildu bere lanaren berezitasun zailean. Orain filologo asko dira, ez bera lan horretan hasi zenean. Zenbat bide zabaldu ditu bere lanarekin! Gero zenbat unibertsitateetan irakatsi zuen eta hori edozeinengatik ezin dezakegu esan. Ikerketa irakasketa haiek harreman asko eta handiak eman zizkion munduko beste jakintsu askorekin. Uste dut bere kalitatea ez dela behar den bezala ezagutua. Harrigarriena da maisu handirik gabe baina lan asko eta ikerketa sakonekin iritsi zela iritsi zeranaino.

Joxe Mari Satrustegik esaten digu: Koldo Mitxelenaren agerpena gerra ondoren euskal kulturaren ez zen oso eroso izan berarentzat, abertzale eta beste gerrako kargu batzuekin zikinduta zegoelako.

Oso zaila izan zitzaion gerra irabazlearen artean aurrera ateratzea, irakaskuntza eta ikerketa, poliziek bezala, kontrolatzen baitzioten egiten zuen guztia.

Baldintza hauekin, osasun txarrarekin eta diru gutxiarekin, askotan joan behar izan zuen Madrileraino eta gaztelaniaz esaten den bezala “por libre” atera zuen bere lizentziatura.

Dena oztopoak bidean eta hala ere langile fina izanik, lizentziaturaren ondoren doktorego bat ere lortu zuen, munduko unibertsitate famatuetan irakatsi zuen eta liburuak idatzi zituen. Zer gehiago eskatu?

Izan zituen posibilitateekin gehiegi egin zuen. Noiz Errenterian kale bat bere izenarekin? Jaio zen kalea edo beste kale on bat, Errenteria zorretan dago berarekin.